

# COVIDaren eragina Euskadiko haur zaugarrienengan





# Metodologia



# Galdeketarako metodologia



**Esparrua:** Espainia.



**Unibertsoa:** 18 urtetik gorako biztanleak.



**Laginaren neurria:** 2.507 elkarrizketa guztira estatuan, banaketa honekin:

Autonomia-erkidegoa	Laginaren neurria
Andaluzia	400
Katalunia	400
Valentziako Erkidegoa	402
Madrilgo Erkidegoa	400
<b>Euskadi</b>	<b>402</b>
Espainiako beste batzuk	503
<b>Guztira</b>	<b>2.507</b>



**Prozedura:** ordenagailuz lagundutako telefono-elkarrizketa (CATI).



**Lagin-errorea:**  $\pm$  % 2,0 (n=2.507); % 95,5eko konfiantza mailarako (bi sigma) eta  $P=Q=0,5$  hipotesi okerrenerako, ausazko laginketa bakunaren kasuan.



**Noiz egin zen:** 2020ko azaroak 16-30.






# COVIDaren eragina

# Pandemiaren ondorio ekonomikoak Euskadin

Familien heren batek baino gehiagok murriztu du diru-sarreraren maila (% 36), eta bostetik batek (% 18) enplegua galdu du. Familien erdiek (% 45) denbora libreaz eta aisialdiaz gozatzeko baliabideak murriztu dituzte.


*Pandemiaren egoerarekin lotuta, eraginik izan al du egoera hauetakoren batek zure etxean?*



# Pandemiaren ondorio ekonomikoak Euskadin

**Pandemiak desoreka sozialak areagotu ditu Euskadin.** Pobrezia-egoeran dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten familiak dira kaltetuenak: 10etik 8tan (% 77) diru-sarreraren maila jaitsi da (900 euro baino gutxiago), erdiek (% 54) lana galdu dute, eta 4tik 1 (% 24) ABEEEn daude. Datu horiek ez datoz bat seme-alabarik gabeko familien egoerarekin; izan ere, horien artean, % 31ren diru-sarreraren maila jaitsi egin da, % 16k lana galdu du edo % 12 ABEEE baten eraginpean daude.


*Pandemiaren egoerarekin lotuta, eraginik izan al du egoera hauetakoren batek zure etxean?*



# Euskadin pandemia garaian eskatutako laguntzak


Bost familiatatik batek dirulaguntza ekonomikoak eskatu ditu Euskadin, egoera arintzeko.

Dirulaguntzak  
eskatu dituzten  
famiak



Zure familiako kideren batek eskatu al dio dirulaguntzarik herri-administrazioari, senide bati edo beste gizarte-eragile batzuei? Zer laguntza eskatu dute?

- Langabezia-laguntza (=LANGABEZIA)
- Bizitzeko Gutxieneko Errenta (BGE)
- Autonomoentzako laguntza
- Gizarteratzeko Gutxieneko Errenta (GGE)
- Senideen laguntza
- Eskola-laguntzak edo beak




“**Besterik**” jartzen duen tokian, emandako dirulaguntzak adierazi nahi dira: ABEEEa, udalen edo autonomia-erkidegoen laguntzak, GKEak, hipoteken atzerapenak, alokairua ordaintzeko laguntza, ICO maileguak, elikagaiak erosteko laguntzak, ardurapeko seme-alabako edo desgaitasunerako laguntza...

# Euskadin pandemia garaian eskatutako laguntzak

Pobrezia-egoeran dauden eta ardurapean seme-alabak dituzten familia gehienek Bizitzeko Gutxieneko Errenta (% 35), beste dirulaguntza batzuk (% 31) eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (% 24) eskatu dituzte.

*Pandemiaren egoerarekin lotuta, eraginik izan al du egoera hauetakoren batek zure etxean?*

■ Seme-alabak bai-Pobrezia      ■ Seme-alabak bai- Gainerakoak      ■ Seme-alabarik ez



“**Besterik**” jartzen duen tokian, emandako dirulaguntzak adierazi nahi dira: ABEEEa, udalen edo autonomia-erkidegoen laguntzak, GKEak, hipoteken atzerapenak, alokairua ordaintzeko laguntza, ICO maileguak, elikagaiak erosteko laguntzak, ardurapeko seme-alabako edo desgaitasunerako laguntza...





# Pandemia garaian jasotako dirulaguntzak

**Euskadin, pandemiaren ondorioei aurre egiteko laguntza ekonomikoak eskatu dituzten familien ia erdiek (% 45) ez dituzte oraindik jaso.** Bestalde, euskal jatorriko familiek jatorri migratzaileko familiek baino bi aldiz gehiago jaso dute.

*Laguntza eskuratu zenuen? Esan, mesedez, zer laguntza mota ari den jasotzen (edo izapidetzen) familia.*

- Bai
- Ez, baina izapidetzen ari gara
- Ez, ez dut inolako dirulaguntzarik jasotzen



*Laginarene neurriaren ondorioz, ezinezkoa da dirulaguntzen araberako gurutzaketak egitea.*


# Euskadin pandemia garaian jasotako dirulaguntzak

Euskadin, langabezia-laguntza eskatu duten 4 familiatatik 1 laguntza hori jasotzen ari da, eta % 7 soilik ari da DSBE jasotzen.

Esan, mesedez, zer laguntza mota ari den jasotzen (edo izapidetzen) familia.

- Langabezia-laguntza (=LANGABEZIA)
- Autonomoentzako laguntza
- Bizitzeko Gutxieneko Errenta (BGE)
- Eskola-laguntzak edo beka
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE)
- Senideen laguntza

■ Besterik




“**Besterik**” jartzen duen tokian, emandako dirulaguntzak adierazi nahi dira: ABEEEa, udalen edo autonomia-erkidegoen laguntzak, GKEak, hipoteken atzerapenak, alokairua ordaintzeko laguntza, ICO maileguak, elikagaiak erosteko laguntzak, ardurapeko seme-alabako edo desgaitasunerako laguntza...

# Euskadin pandemia garaian jasotako dirulaguntzak

Seme-alabak ardurapean dituzten eta pobrezia-egoeran dauden 5 familiatatik 1 soilik (% 19) ari da langabezia-laguntza jasotzen; horien aurrean, seme-alabak dituzten gainerako familien % 30 ari da laguntza hori bera jasotzen.

*Laguntza eskuratu zenuen? Esan, mesedez, zer laguntza mota ari den jasotzen (edo izapidetzen) familia.*




% bakoitza eskatzaile kopuru osoaren gainean kalkulatu da.

# Estatuaren eta familiaren egoera ekonomikoaren balioespena


Elkarrizketatutako 4tik 3rentzat (% 76), **gaur egun Estatuaren egoera ekonomikoa txarra edo oso txarra da.** Familiaren egoera ekonomikoari dagokionez, pandemia hasi eta 9 hilabetera, inkestatutako pertsonen % 21entzat negatiboa da.

*Nola definituko zenuke Espainiaren egungo egoera ekonomikoa? Eta zure familiarena?*

## Estatua



## Familia






# Egoera ekonomikoaren balioespena urtebete barru


2021erako aurreikuspenak ez dira baikorrak: inkestari erantzun dioten familien ia erdiek (% 42) uste dute Espainiako egoera ekonomikoa okerragoa izan daitekeela 2021ean. % 58k soilik uste du familiaren egoera ekonomikoak berdin jarraituko duela.

*Zure ustez, nolakoa izango da Espainiaren egoera ekonomikoa urtebete barru? Eta zure familiarena?*

## Estatua



## Familia






## Etxebizitza eta familia-ekonomia

# Zailtasunak ordainketei aurre egiteko orduan Euskadin

Euskadin, pandemiak eragindako krisi ekonomikoak agerian utzi du familien artean dagoen arrakala, familia-osaeraren arabera: pobrezia-egoeran dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten familien % 27k arazoak izan ditu haragia eta arraina erosteko, % 18k oinarrizko zerbitzuak ordaintzeko (energia elektrikoa, telefonoa edo ura), eta 10etik batek berogailua edo Internet ordaintzeko; izan ere, Internet ezinbesteko bihurtu da pandemian, haurrei beren hezkuntza-prozesuarekin jarraitzeko aukera eman ahal izateko, ikastetxeak itxita egon diren bitartean. Gainera, pobrezia-egoeran dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten familien % 4k (28.000 inguruk) mozketak jasan dituzte oinarrizko horniduretan Euskadin. **Datu horiek ez datoz bat seme-alabarik gabeko familiekin: arrainaren eta haragiaren erosketari dagokionez, ordainketa horiek egiteko zailtasunak izan dituztenen ehunekoak % 9koa izan da, eta familien % 5ek izan ditu oinarrizko zerbitzuak ordaintzeko zailtasunak.**




# Zailtasunak ordainketei aurre egiteko orduan Euskadin

**Errenta txikienak dituzten etxeetan zailtasun handiagoak izan dituzte: 900 €-tik beherako 3 familiatatik batek (% 33) arazoak izan ditu haragia eta arraina erosteko.**

**Era berean**, hirutik batek (% 29) zailtasunak izan ditu beste elikagai batzuk ordaintzeko, eta % 18k argindarra, telefona edo ura ordaintzeko. Datu horiek ez datoz bat 900 €-tik gorako errentak dituzten familien datuekin.

*COVIDaren ondorioz, arazorik izan al duzu ordainketa hauetakoren bat egiteko?*

Errenta mailaren arabera






# Gastuen murrizketa pandemiaren ondorioz Euskadin

Euskadin, aisialdian egin dute gastu-murrizketa nagusia familiek (% 16)


*Pandemiaren ondorioz, gastua murriztu behar izan duzu (premiagatik) partida hauetakoren batean?*



# Gastuen murrizketa pandemiaren ondorioz Euskadin

Familiaren errentan oinarrituta aztertuz gero, ikus dezakegu Euskadin 900 €-tik beherako errentak dituzten familiek, oro har, gastuak murriztu egin behar izan dituztela, batez ere aisialdira (% 53), berokuntzara (% 47), energia-kontsumora (% 47) eta elikadurara (% 40) zuzendutakoak.


*Pandemiaren ondorioz, gastua murriztu behar izan duzu (premiagatik) partida hauetakoren batean?*



# Gastuen murrizketa pandemiaren ondorioz Euskadin

Familien osieran eta, bereziki, haien errenta mailan oinarrituta aztertuz gero, ikus dezakegu Euskadin pobrezia-egoeran dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten familiek oro har murriztu behar izan dituztela beren gastuak, nagusiki arropa erostera (% 75), aisialdira (% 74) eta energia-kontsumora (% 65) zuzendutakoak.

*Pandemiaren ondorioz, gastua murriztu behar izan duzu (premiagatik) partida hauetakoren batean?*



# Gabonak: pandemiaren eragina kontsumoan Euskadin

Familien egoera ekonomikoak eragina izango du Gabonetako jaien prestaketan eta gozamenean: 4 familiatatik ia 1ek (% 18,6) zailtasunak izango ditu opariak erosteko, % 14,7k jantzi beroak erosteko, eta % 14,5ek afari berezi bat egiteko.

*Gabonei begira eta aurreko urteetakoekin alderatuta, gastu hauei aurre egiteko zailtasunak izango dituzula uste duzu?*






# Gabonak: pandemiaren eragina kontsumoan

Inkestak agerian uzten du, halaber, pobrezia-egoeran dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten familiak direla, argi eta garbi, Gabon jaien prestakuntzari eta gozamenari dagokionez kaltetuenak: ardurapean haurrak dituzten 4 familia zaugarritatik ia 3k (% 70) zailtasunak izango dituzte seme-alabentzako opariak erosteko, eta 3tik 2k (% 60), berriz, afari berezi bat egiteko. Familia horien erdiek (% 54) ahalegin handia egin beharko dute jantzi beroak erosteko.

*Gabonei begira eta aurreko urteetakoekin alderatuta, gastu hauei aurre egiteko zailtasunak izango dituzula uste duzu?*






# Osasuna eta ongizate emozionala

# Osasun-egoera fisikoaren eta emozionalaren balioespena Euskadin

Seme-alabak ardurapean dituzten eta baliabide gutxien dituzten familietan COVID-19ak duen eragina haien osasun-egoera fisikoan eta emozionalean islatzen da baita ere. Pobrezia-egoera larrian dauden eta ardurapean seme-alabak dituzten 3 familietatik ia 1ek (% 28) aitortu dute beren osasun emozionalaren egoerak okerrera egin duela. Gainera, % 58ren osasun fisikoak ere okerrera egin du.


*Nola definituko zenuke zure osasun fisikoa eta emozionala?*



# Egoera emozionalaren balioespena Euskadin

Familiaren estresa, oro har, handiagoa da seme-alabak ardurapean dituzten etxeetan, errenta txikiagoa izan edo ez, gainerako etxeetan baino. Adin txikikoak ardurapean dituzten eta errenta handiagoa duten familietan ('gainerakoak'), antzeko estres-uneak izaten dituzte, baina zoriontasun-une gehiago eta bakardade gutxiago.


*Bizi dugun egoeraren aurrean, uneren batean honela sentitu zarela esango zenuke?*



# Osasun-egoera fisikoaren eta emozionalaren bilakaera Euskadin

**COVID-19aren eragin emozionalak nabarmenak dira seme-alabak ardurapean dituzten nahiz ez dituzten familietan.** Pobrezia-egoera larrian dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten familien % 58k aitortu du beren osasun emozionalaren egoerak okerrera egin duela, eta gainerako etxeetan, berriz, % 43k. Osasun fisikoaren egoerak okerrera egin du pobrezia-egoera larrian dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten 3 familietatik batean (% 35), gainerako familietan baino sei puntu gorago.


*Zure osasun-egoerari dagokionez (fisikoa eta emozionala), pandemia hasi zenetik hobera edo okerrera egin duela uste duzu?*



# Osasun-egoera fisikoaren eta emozionalaren bilakaera

Osasun mentalak batezbestekoaren (% 45) gainetik okerrera egin duen familia bakarrak 900 eta 1.200 € arteko errenta dutenak dira (% 53).

*Zure osasun-egoerari dagokionez (fisikoa eta emozionala), pandemia hasi zenetik hobera edo okerrera egin duela uste duzu?*





# Azterketaren ondorioak





# Ondorioak

Pandemiak desoreka sozialak areagotu ditu Euskadin, baina pobrezia-egoeran dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten familiak dira kaltetuenak:

- **Langabezia eta diru-sarreren mailaren jaitsiera:** seme-alabak ardurapean dituzten 10 familia zaugarritatik 8k diru-sarreren mailaren jaitsiera jasan dute pandemiaren ondorioz, seme-alabarik gabeko familien kasuan baino ia hiru aldiz gehiago, eta erdiek lana galdu dute.
- **Hornidura-mozketak:** pobrezia-egoeran dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten familien % 4k (28.000 inguruk) mozketak jasan dituzte oinarrizko horniduretan Euskadin.
- **Elikadura:** pobrezia-egoeran dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten familien % 27k arazoak izan ditu haragia eta arraina erosteko, % 18k oinarrizko zerbitzuak ordaintzeko (energia elektrikoa, telefonoa edo ura), eta 10etik batek berogailua edo Internet ordaintzeko; izan ere, Internet ezinbesteko bihurtu da pandemian, haurrei beren hezkuntza-prozesuarekin jarraitzeko aukera eman ahal izateko, ikastetxeak itxita egon diren bitartean.
- **Gabonak:** ardurapean haurrak dituzten eta pobrezia-egoeran dauden 4 familiatatik 3k zailtasunak izango dituzte seme-alabentzako opariak erosteko Gabonetan; % 60k zailtasunak izango ditu afari berezi bat egiteko, eta % 54k ahalegin handia egin beharko du jantzi beroak erosteko.
- **Laguntzak:** Euskadin, pandemiaren ondorioei aurre egiteko laguntza ekonomikoak eskatu dituzten familien % 45ek ez ditu oraindik jaso.



# Save the Children proposamenak

# Proposamenak (I)

---

## 1. Gizarte-babeseko neurri guztiak eskuratzeko izapideak azkartzea eta hobetzea Euskadin

- Gainera, aintzat hartu behar da arrakala digitalaren eraginpean dauden kolektibo zaugarrienen zailtasunak dituztela laguntza horiek eskuratzeko. Laguntza horiek eskuratzeari buruzko informazioa ere eman behar da, haien irismena handitzeko.
- Euskadin, haur-pobreziaren aurka borrokatzeko, premiazkoa da DSBEren erreforma bat egitea, seme-alabak ardurapean dituzten familiei zuzendutako babesa hobetzeko eta zenbatekoak handitzeko, batez ere guraso bakarreko familien kasuan. Era berean, beharrezkoa da gaur egun pobrezia-arriskuan egonik prestazio hori jasotzen ez duten milaka familiei DSBE eskuratzen laguntzea.
- Adingabeak ardurapean dituzten familien kasuan DSBE etetea edo azkentzea erabakitzeko orduan haurraren interes gorenaren irizpidea nahitaez eta inguruabar guztietan txertatzea, eta, hala badagokio, DSBEren esparruan ezarritako betebeharrak bete ez dituzten familiei bestelako zehapenak aplikatzea.
- DSBEren etxebizitzaren betekizuna egokitzea, BGEra egokitzeko. DSBE jasotzeko Euskadin gutxienez hiru urtez bizi izana beharrezkoa bada ere, BGEra nahikoa da Espainiako lurraldean urtebetez bizitzea. Baldintza hori egokitzeak gizarte-laguntzen desorekatzea saihestuko luke, Euskadin hiru urte baino gutxiago bizi izan diren pertsonen aukera gutxiago baitute.

# Proposamenak (II)

## 2. Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko beste laguntza bat gehitzea.

- Bizi-kalitatearen galera aintzat hartuta diru-sarreraren galeraren gainera, edo pandemiaren ondorioz ongizate emozionalean izandako galera aintzat hartuta, beharrezkoa da pobrezia eta bazterketa hainbat dimentsiotatik aztertzea, dirutik harago. BGEren etorrerak autonomia-erkidegoko aurrekontuan dakarren aurrezpena ikusita, zenbateko hori haur-pobreziari aurre egiteko erabiltzea proposatzen dugu, pobrezia-atalasearen azpitik dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten familientzako berariazko prestazio bat sortuz. Prestazioaren zenbatekoa etxeko diru-sarreraren mailaren eta familian dauden haur eta nerabeen kopuruaren arabera izango da. Pobrezia-egoeran dauden familia guztiei esleitzea proposatzen dugu, DSBE jasotzen duten ala ez alde batera utzita, beren ardurapean adingabeak dituzten eta gizarte-babeseko beste prestazio batzuk jasotzeko aukerarik ez duten familia zaugarriak barnean hartzeko. Aurreikuspenen arabera, ardurapeko seme-alabengatiko prestazio horrek, DSBEren osagarri gisa, Euskadiko haur-pobreziaren egungo maila ehuneko 1,7 puntu murriztu dezake, % 23,9tik % 22,2ra, hain zuzen ere. Haur-pobrezia larriak bi puntu baino gehiago egingo luke behera, % 8,4tik % 6,1era. Guztira, 9.000 haur inguru aterako lirateke pobrezia larritik.

## 3. Pobreziaren dimentsio guztiak jorratuko dituzten politikak

- Bizi-kalitatearen galera aintzat hartuta diru-sarreraren galeraren gainera, edo pandemiaren ondorioz ongizate emozionalean izandako galera aintzat hartuta, beharrezkoa da pobrezia eta bazterketa hainbat dimentsiotatik aztertzea, dirutik harago.
- Pobrezia energetikoari heltzea, energia-hornikuntzarako sarbide duina bermatuz, bonu soziala eskuratzeko formula malguagoen bidez eta zaugarritasun-egoeretan hornidura-mozketak debekatuz.

# Proposamenak (III)

---

## **4. Kalitate handiagoko enplegua lortzea**

- Egoera zaugarrian dauden eta seme-alabak ardurapean dituzten familiek kalitatezko enpleguak eskura ditzaten sustatzea, gizarteratze eta laneratze iraunkorrerako baldintzak sortuz, talde horien berariazko oztopoei aurre egiteko (zerbitzuak eskuratzea, kontziliazio-beharrak, prestakuntza, etab.).

## **5. Inbertsio maila handiagoak haurren atalean, zerga-sistema eraginkor baten bidez**

- Haurren atalean inbertsio maila handiagokiko konpromisoa ziurtatzea, haur bakar bat ere atzean utzi gabe, haurren gaitasunen eta ahalmenen garapena bermatuz eta gizarte osoaren oparotasun ekonomikorako oinarriak ezarriz.
- Horretarako, zerga-sistema bidezkoagoa eta eraginkorragoa behar da haurren pobrezia-aren aurkako borrokan. Halaber, funtsezkoa da Europako egitura- eta berreraikuntza-funtsak haurren ikuspegitik bideratzea. Baliabide horiek haurren egungo ongizatea bermatu behar dute, laguntza ekonomikoen bidez eta oinarrizko eta kalitatezko zerbitzuak eskuratzeko aukera emanez.



**Save the Children**